

Danel Elezkanok jokatzeari itxi deuto

Osasun arazoak dirala-ta itxi deuto pelotan jokatzeari Zaratamo eta Dimako jokalariek. Sare sozialetan egin dau agurra, hartu beharreko ebatzi honek emon deutsan pena azalduz eta eskerrak emonaz bere ibilbide profesionalean ondoan izan dauzan guztiei. Holan, 12 urteko ibilbide profesionalari amaierara emoten deuto 2019an eta 2021ean, Rezustagaz eta Zabaletagaz hurrengo hurrengo Binakako Txapelketak irabazi dauzan pelotariak. **19. orrialdea**



8.342 etxebizitzako parkea BEGITU eremuan

Arratia, Ubide eta Zeberio 2023ko datua da. Etxe horrietatik 6.192 etxebizitza nagusiak dira; hau da bertan erroldatuta dago jentea. Euskal Herrian legez, Arratia, Ubide eta Zeberion be hamar familiatik zortzi bere jaubetzako etxe baten bizi da. BEGITUren eremuan, porzentajea Er-kidegoan baino apur bar altuagoa da; %81,2, Euskadin eta %83,79 Arratia, Ubide eta Zeberion.

Saretzen, tokiko hedabide eta EITB-ren alkarlaneko proiektuak, Eustat, INE, Nastat, Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko Ministerioa, Eusko Jaurlaritzeta eta Etxebizitzako Behatokia etxebizitzaren gaineko datuak jaso ditu. **9. orrialdetik 14. orrialdera**



Unibersidaderako autobus eske



Leioako campusean ikasten dagoan ikasle talde bat galdetegia zabalduen dago Arratiako Udalen Mankomunitadeari edo Bizkaibus-eri Arratiatik Euskal Herriko Unibertsitateko campusetara zuzeneko autobusa ipinteko. Bide batez, arratiarren garraio publikoko preminak jakiteko balioko dauala galdetegiak uste dabe ikasleek. **8. orrialdea**

ARRATIA

Gazteentzako hiru zerbitzu ipini ditu martxan AUMk

Laneratze eta ikasketetarako aholkularitza zerbitzua, aholkularitza psikologiko eta sexologikoa eta belaunaldien arteko Denboraren Bankua dira zerbitzu horreek. 16 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoz. **5. orrialdea**

IGORRE

Igorren aurkeztuko da Blas de Oteroren antologia elebiduna

Zemiendiaren 15ean, 20:00etan, *Una letra impagada-Ordaindu gabeko letra bat* Blas de Oteroren poesiaren antologia elebiduna aurkeztuko da Igorreko liburutegian. Poesia hegalaria taldekoek antologia horretako euskerazko poemak errezitauko dabez, musikeagaz lagunduta. **20. orrialdea**

ARTEA

Herritarren proposamenak batzean dabil Udala

Urte amaierarako datorren urteko aurrekontuak prest eukiteko helburuagaz, udalak hasi dira 2025eko udal kontuen zirriborroak prestatzen eta euren herritarrei iradokizunak egiteko eskatzen.

Artean, Udalak zirriborroa bialduko dau etxeetara eta animetan ditu herritarren proposamenak, idea eta iradokizunak horretarako ipinitako postontzian edo posta elektronikoz bialtzera. Herritarren proposamenak gauzatzeko 10.000 euro dagoz aurreikusita baina proposamenak kopuru hori gainditzen badau be aztertuko dala, beste partida baten sartzeako dinoe Udaletik. **5. orrialdea**

INMOBILIARIA

Larrea

Promozioak, pisuak, etxeak, baserriak, lurak, txaletak...

ARRATIAKO BAZTERRAK ZEIN POLITAK DIREN!

Lehendakari Agirre, 8 behea · 94 631 80 04 · IGORRE
igorre@inmolarrea.com
www.inmobiliarialarrea.com
 WhatsApp 660 452 420

EKIN

LAN PUBLIKOAK
 UR ETA SANEAMENTSU SAREAK
 BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
 PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidea.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LV). Kale berbakunea sustatu guran

KALABAZAK

- Hi!! Kalabazakaz nora **hoa**?
- Halloween **dok** eta!!
- Baina horreek kanpotik etorritako gauzak **dozak**!!
- Bueno, bai eta ez!
- Eta hori?
- Ba gure amamen sasoiaren be egiten **zoan**.
- Ezeik** esan!
- Bai, ohitura pagano bat ei **zoan** oin dala mende askokoa.
- Eta Euskal Herrian be kalabazak kandelegaz ipinten **zoazan**?
- Bai jauna.
- Eta zein **dok** euskal izena.
- Arimen Gaua.

ERETXIA

Arratia eta klima aldaketea

Klima aldaketea errealidade bat da planeta mailan, gizateriaren etorkizuna baldintzatuko dauana. Datu guztien arabera, tenperatura globalaren igoereak dakarzan ondorio larriak daborduko sufriduten gabiz: polo eta glaziarren urtzea eta itsas maila handitzea, muturreko eragin atmosferikoak, aldaketak tenperaturan eta itsasoen portaeran, ustiapen neokoloniala hegoalde globalean gure bizi-estatusa mantenduko dauan transizino energetikoa egiteko iparraldean behar doguzan mineralak bereganatzeagaitik, bioerregaiak lortzeako eskala handiko basobakotzea, biodibersidadearen etenbako murrizketea, eta abar.

Horretan NBERentzat lan egiten daberen ehunka zientzialariek, estadietako liderrek, aktibista gazteek, komunitate erlijioso eta sozialetako liderrek, erakunde ekologistek eta abarrek dei egiten dabe egun baten bai eta bestean be bai, kontzientzia hartzeraren eta, batez be, tenperatura globalaren igoerea gelditu arazoteko neurriak hartzeraren. Urtero nazinoarteko goi-bilerak egiten dira, legeak idazten dira, erakundeetatik dirua ipinten da, teknologian inbertiduten da energia iturri barriztagarriak sortzeako, erregai fosilen kontsumoagaz amaituteko datak ipinten dira...

Ahalegin hori egin arren, errealidadea nahiko etsigarria da: hegazkinen bidaien errekor historikoa, baita jet pribaduena be, transatlantiko turistiko handiek gure portuetara egiten daberen bisiten igoerea, kanpoko energia menpekotasunak ia bardin jarraitzen dau, oso altu, energia konpainia handiek mozkin errekorak lortzean ditue tenperatura globalaren igoera eteteko behar diran aldaketak moteltzen saiatzen diran bitartean, gure kontsumoa ez da murrizten...

Eta gure inguru hurbilenean, zer gertatzen da? Zer egiten dogu? Zelan eragiten deutso ho-



BERNA GÓMEZ EDESA
Militante ekosoziala

rrek guztiak gure eguneroko bizitzari, hemen, Arratian?

Gatxa da orokortzea, baina zehetasunen baten huts egiteko arriskua egon arren, esan leteke Arratian, instalazio foltovoltakoaz gainera, puntu publikoren batean edo bestean eta teilatu pribadu batzuetan, ez dala mobimentu handirik ikusten, salbu eta Dimako Energia Komunitatearen sorrerea eta Udalak eta Udaleko bi alderdi politikoez hategaz hartutako konpromisoa, bai eta Arteako Energia Komunitatearen sorrerea be, nahiz eta Udalaren jarkereagaitik erdi geldirik egon. Ziur nago Arratiako biztanle gehienok badakigula zer dan klima aldaketearen kontu hori, baina oso konpromiso txikia dago tenperatura globalaren igoerea gelditu arazoteko, epe ertainera ondorio katastrofikoak ekarriko ditue eta lurreko bizitzarako.

Ez naz inor gai honeri buruzko jokabide personalak salatzeko edo epaitzeko, baina bai ohar-tu arazo gura dot beharrezkoa eta ezinbestekoa dana, hau da, norbanakoaren konpromisoa, ekintza personala, gitxienekoa izanda be, gutako bakoak klima aldaketea gelditu arazoteko ipini beharko geunkena.

Eta, akaso, Arratiako herritarrok ez bagagoz egoera horren mailan, zer esanik ez hurren daukaguzan erakundeetatik, udaletatik eta Mankomunitadetik. Udalen eta Mankomunitadearen webguneak aztertuta, ez dot topau klima aldaketeagaz eta transizino energetikoagaz lotutako proiekturik, Dimari buruz aitatutakoa eta argiteria publikoaren eraginkortasuna hobetuteko proiekturen bat izan ezik. Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Legeak,

aurtengo zezeilekoak, udalek gai horregaz lotutako hainbat gaitan jarraitu beharreko bideak eta betebeharrak adierazoten ditue, baina denporea igaro da eta ez da ekimenik ikusten.

Kontrara, adibide bat jartzearen, aldaketa klimatikoaren aurrean politika aurrerakoia izan beharko leukenaren antipodetan dagozan ekintzak baimentzen jarraitzen da, joan dan urri lehenengoan Diman egin zan "Dimako II. igoera" rallya, esate baterako.

Gauza zehatz bi aitatuko neukez proposamen moduan, etorkizuneko kausa horregaz bat egiteko: udal aurrekontuak eta Gabonetako argiak. Udalek aurrekontu sail ekonomiko nahikoa gorde beharko leukie datorren urterako, biztanleei zuzendutako kontzientziatze eta informazio dinamikak hasteko eta, hala bajagoko, jarraitzeko, udal langileak gai horreen gainean prestatzeko eta transizino energetikorako jarduketa planak egiteko, batez be, Energia Komunitate partehartzaileak eta solidarioak sortzeako bultzadeagaz. Gabonetako argien gainean, freno jo eta alde batera itxi behar da urte urte argien instalazioa handitzeko dinamikea. Ez dira ezinbestekoak, gastu energetiko handia eragiten dabe eta emon beharreko gizarte kontzientziaren aldaketea gelditu arazoten dabe.

Errepaso orokor honetan, azken ohar bat hezkuntza komunitadeari, bailarako eskolei, Institutuari, Zulaibarreri eta abarri zuzentzen deutset, aukera asko dituelako klima kontzientzia barria eta aldaketa ekosoziala landuteko, ikasgeletan eta curriculuan etorkizuneko kontzientzia ekologikoaren zati handi bat dago-ta jokoan.

Eta, zelan ez, dei berezi bat gazteei. Oso garrantzitsua da Greta Thunberg lango erreferentziatzko aktibistak egotea, baina hemen eta oin oindino garrantzitsuagoa da Arratiako gazteek klima aldaketearen kontrako burrukea etorkizuneko lan lehentasunatz hartzea, euren parte-hartze barik burruka hori motz geratuko dalako.



LUMATUTEN



ZEFE ZIARRUSTA

Landa garapena

Hamarkadak dira gure lurraldea baso-pinuaren eta harrobi ustiaketara bideratu zala europar komunitatearen eta hemengo administrazioen oneretxiagaz ekonomia globalaren aginduetara. Ostean etorri ziran gure baserriak hustutzeko dirulaguntzak, eta ondorioz, baserri ekosistemen desegite eta gure paisaje naturalen itxuraldaketa eta galerak elikagaien sistema produktiboan zein maila sozialean.

Paradigmatikoa bada be, lehenengo bertako baso naturalak desegin eta gero parke naturalak sortzea legetxe, gauza bera gertatu da landa eremuakaz: Landa garapenerako agentziak sortuz aurretiaz hartutako ebatziak ziritu eta jente-artearen aurrean aurrerapen irudia eta "konpromisoa" adierazoteko.

Abeltzantza, nekazaritza, bertako basogintza, ortugintza... adibide garbiak doguz non

produkzioak ez dauzan kubrituten ekoizpen gastuak, honek elikagaien katean dabezan ondorioak bistarazo ez ezik, agerian ixten deuskularik garapen agentzien eta politika publikoen transparentzia eza eta praktika komertzial desleialak agro-politika sostengarrien bidean.

Gauzak okerrago oindino, agentziok dirulaguntzen iruzurrar baliatzen diranean ekoizle handien mesedetan. Non gelditzen dira sektorean persona barriak sartzeako lur disponibleak, ekoizleentzako laguntza zuzenak edo bertako ekoizpen jasangarrietarako laguntzak?

Elikagaien munduan ekoizpen lokaleko tansizino bidea urgentiazkoa eta ezinbestekoa bada, herritarrok jeneralean, eta gure landa garapenerako agentzia eta podere publikoek badaukie zer aldatu eta zer bisualizau.

Gure lurrak bertako basogintzea, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikora bideratzea; prozesu espekulatiboetatik alde egin eta barne merkadu egonkorak indartzea; ondare naturalen kudeaketa jasangarriak egitea, laguntza zuzenak ekoizleei; persona barriakaz erreleboak sektorean bermatzea; bertako elikadura ardatz politika publikoetan; landa eremuen bizi iraupena *versus* nekazal jardueren bizi iraupena; basoen ustiapen jasangarria matarrasa modeloa ekidinez; energia barritagarriak... edo gobernantza eredu barriak. Bada non ekin!

ZERTZEAN



AIALA IRURTIA MONTERO

Gaia jarrita: "Burruka feministea"

1

Gu bakarrik borrokatzen aritu gara luzaro sarri lan bikoitza iten heldu zein nerabezaro ta oraindik horrenbeste aldarrikatzeko dago ez daiten izan barriro gutariko bat gehiago gero kaleak hartzean izin martxo zein azaro ausartak garen heinean nahiz garen indartsuago ausarta izitea baino aske izitea nahiago.

2

Ulea dogunok hanka eta besapeetan zehar azal zuri edo beltza euskaldun edo nigeriar lodiak eta argalak gazte heldu edo zahar ama bat beste ama bat duena gustoko samar gorputz perfektuen kontra altzatzuz zaindute alkar neskak ez gara ta soilik zishetetero senar bakar gure gorputzek ez dute zuon iritzirik behar.

3

Gura badot joango naz goizaldean tabernara gona jantzi edo ez jantzi nire erabakia da zuk kontrolau behar dozu nora doan begirada aituzazu nik ez dekot intentziorik zugaz hara nahiz nahiko presente egon feminismoan bulkada arazo handi bat dau ta errudunek gu ez gara ta ikusten ez badozu arazoan parte zara.

4

Ez segitako entzuten "Erasotu naute ama" hau bihurtu behar dogu herri honen iragana alkarregaz jaietatik botakoguz banan bana norbera ezin eroso egon holako giroan barna eta handie dan arren aurretik dekogun lana egoten ez badakizu ez etorri guregana entzun ez daiten barriro eraso baten alarma.

BEGI TXINDORRA

Arratiako itsasorako urtekerea Urdaibai da; Urdaibain dagoz arratiarren txikitako hondartzak eta leku eder horretan sortu jakon arratiar askori itsasoagazko maitasuna. Horregaitik, Urdaibai Guggenheim Stop plataformeak deitutako urri bigarrenaren 19ko manifestazioan hainbat Arratiako itsaso zale eta ekologista egon ziran, naturgune perfektu hori bakean itxi eta han Guggenheim museorik ez egiteko eskatzeko. Bakean dagoana eta bakea emoten dauana, bakean itxeko eskatzeko.

Ze nezesidade dauka Bizkaiak Guggenheim museo bi eukiteko?

Baina, antza, ez dago aseterik instituzinoen makroproiektuen gosea, eta ez dauka nahikoa mendiak suntsitzeagaz (parke eolikoak, goi-tensinoko lineako torreak, AHT...), itsasoa, itsasertzak eta hezeguneak be ustiatu behar dira momentuko industriaren baten (energia edo turismoa) mesedetan.

Manifestazioa jentetsua izan zan, arrain txiki asko batu ziran, makroproiektuaren arrain handiari aurre egiteko. Poderetsuei aurre egiteko, herritarren antolakuntzea beharrezkoa da-ta.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredoriak@gmail.com

agoa
hagin klinikak
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikasgaitza Zentrua 101
R.P.S. 31/06

ARTEA

Ekarpenak egin ahal izateko, aurrekontuen zirriborroa bialdu dau etxeetara Arteako Udalak

Erredakzioa

Herritarren ekimenak gauzatu ahal izateko 10.000 euroko diru partidea dago.

Aurreko urteetan legez, 2025eko Udal aurrekontuen lehenengo zirriborroa etxe guztietara bialduko da, informazio horregaz herritarrek herrian gauzatu beharreko proposamenak eta ekimenak egin eta aurkeztu ahal dajezan.

Artean erroldatutako 16 urtetik gorakoek hartu daikie parte, proposamen eta ideak iradokizunen postontzian edo alkatetza.artea@bizkaia.org helbidean aurkeztuz. "Oso labur azaldu beharko dabe zer eskatzen daben eta ekime-

naren deskribapena eta onurak azaldu beharko dabez" adierazo deutso BEGITUri Gorka Beitia zinegotziak. "Proposamenak mota guztietakoak izan daitezke, baina kontuan hartu ahal izateko, alde teknikitik, udal eskumenekoak izan behar dira eta alde ekonomikitik bideragarriak eta jasagarriak" gehitu dau zinegotziak.

Proposamen honeetarako 10.000 euro dagoz, baina 10.000 eurotik gorakoak badira "jasotako ideak kontuan izango dira aztertzeko, landuten joateko eta, alde teknikitik bideragarriak badira, aurrekontuko beste partida batzuen kargura gauzatzeko. Idea guztiak ondo etorriak dira".

Parte-hartzearen garrantzia

Beitiak herria hobea egiteko parte-hartzearen garrantzia ekarri gura izan dau gogora. Aurreko urteetan hainbat proiektu gauzatu dira herritarren parte-hartzeari esker: gimnasioko gelako makina barriak, Bidosolako autobus markesina edo Arteatik Areatzarako errepidean Ugarten dagozan jarlekuak, esate baterako. Herritarren proposamenean oinarritutako beste proiektu batzuk be gauzaten ditu Udalak.



BEDIA

Baba-jana eta erromeria Bedian San Martin eguna ospatuteko

Erredakzioa

Sasoi baten txarria hilteko eguna izaten zan zehazkiaren 11, San Martin eguna, eta egun, leku askotan, San Martin izenpeko ermiten inguruetan batez be, txarriak jaten ospatuten dabe egun hau.

Horretarako aukerea egongo da Bedian San Martin eguneko aurreko zapatuan. Izan be, txixti-burduntzia eta baba-jana prestatu dabe beste ekintza batzuen artean jaia ospatuteko. Mezea, Ereñoko San Martin ermitan izango da; bazkaria eta erromeria, barriz, Bediako frontoian.

Zemendiak 9, zapatua

09:00etan, ibilaldia Martin Atutxaren omenez, Bediako plazatik urtenda.

10:30etik 12:00etara, txixti-burduntzia, Bediako gazte trikitilariak girotuta.

12:00etan, mezea San Martin ermitan.

12:45ean, bola jokoa eta zozketea. 14:30ean, baba-jana eta erromeria frontoian.



ARRATIA

Hiru zerbitzu ipini ditu martxan AUMk Gaztedi Arratia 2024 programan

Arratiako Udalen Mankomunitateak 16 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzendutako programa bat ipini dau abian, Gaztedi Arratia 2024 izenpean. Helburua da bizitzaren etapa honetan hainbat alderditan gazteak lagundutea; esate baterako, enplegua eta emantzipazioa lortzean, parte-hartzea eta balioetan hezteko edota osasuna modu integralean jagoteko.

Erredakzioa

Hori dala-ta, programearen barruan hiru zerbitzu dagoz; aholkularitza zerbitzua: laneratzera eta ikasketak; aholkularitza psikologiko eta sexologikoa eta belaunaldien arteko Denboraren Bankua izenekoak.

Laneratzera eta ikasketen zerbitzuak, banakako orientazioa eta laguntza eskaintzen deutsez ikasketak amaitu dabezane, lan munduan sartzeako. Zerbitzua aurrez aurre eta *online* eskaintzen da. Hartu-emonetan jartzeko orientazio-indibidualak@arratia.eus helbidera idatzi edo 655 826 551 telefonora jo daiteke.

Aholkularitza psikologiko eta sexologikoa barriz, "gazteek sexuagazko edota beste edozein gai personalagazko inguruan dituen zalantzak edota kezkek partekatze esparru seguru eta konfidentziala da" AUMen arabera. Zerbitzua *online* eta telefono

bidezkoa da. Kontaktuan jartzeko kontsulta-gaztedi@arratia.eus helbidera idatzi edo 655 826 551 telefonora deitu daiteke.

Eta belaunaldien arteko Denboraren Bankua, Arratian bizi diran personeren artean zerbitzu puntualak, jakintzak eta ezagu-

tzak trukatzeko sistemea da. Borondatezkoa, antolatua eta askea da eta denporea erabilten dau truke unidate moduan. Hartu-emonetan ipinteko denborarenbankua@arratia.eus helbidera idatzi edo 688 766 302 telefonora jo daiteke.



ARRATIA, ZEBERIO

Palestinarraren genozidioa salatuteko konzentrazioak egin ziran gurean

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 21ean, Gemika-Palestina herri ekimenak deituta; Euskal Herri osoan, 178 udaletxeren aurrean, milaka lagun bildu ziran, genozidioa gelditzeko eskatzeko. Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre, Lemoa, Zeanuri eta Zeberio be batu ziran deialdira. Antolatzaileen arabera guztira 460 lagun inguru batu ziran Arratia eta Zeberion.

Konzentrazioetan, Palestinari alkartasuna adierazteaz gainera, genozidioa gauzatzeko EBk, Europar Batasunak eta nazioarteko komunitadeko zati handi batek Israeleri emondako inpunidadea be salatu zan.

Urriaren bete zan Israeler herri palestinarraren kontrako eraso hau hasi ebanetik eta ordutik 42.000 palestinar baino gehiago hil ditu, eurretatik 17.000 inguru umeak.



Dimako konzentrazioa goian eta Igorrekoa behean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Idazle, antzerkigile, komikigile eta zinegileei zuzendutako Geuretik sortuak proiektuaren 3. edizioa abian da

Erredakzioa

Udalbiltzak antolatuta, proiektuak euskal artisten sormena eta herri kontakizuna buztartzea dauka helburu, euskeraz egindako artearen sormena eta hedapena bultzatzeko. Lanak zehemendiaren 25era arte bialdu daitezke Udalbiltzaren Erregistrora Doneztebe plaza 1, 20180 Oiartzun, Gipuzkoa helbidera edo <https://www.udalbiltza.eus/geuretik-sortuak/geuretik-sortuak-beka-deialdia> estekara igon. Urte biko beka da: lehenengo, sormenerako, eta bigarrena, hedapenerako. Hirugarren edizioa

no honek 2025 eta 2026 urteak hartuko ditu.

Aurtengo edizioan, igazko lau alorrei eutsiko deutse proiektuak: komikigintza, literatura, antzerkigintza eta zinemagintza. Aurten barrikuntza moduan, kale-antzerkiari jagokonean, gitxienez, antzerkigile edo konpainia hasibarribat hautatuko da.

Irudi barria be izango dau proiektuak: Udalbiltzak bere logotipoa barritu eban urtaileko Batzar Orokorrean eta horren eskutik, Geuretik Sortuak proiektuaren logotipo eta iruditeria be barriak dira.

GEURETIK SORTUAK

Udalbiltza

LEMOA

Baserriko udagoieneko produktuen azokea Lemoan

Erredakzioa

Lehen sektorea eta bertako produktuen zuzeneko salmentea bultzatzeko asmoz, Lemoako Udalak XXV. Nekazaritzako Elikagaien Azokea antolatu dau zehemendiaren 10erako, 10:00etatik aurrera, Arlonagusia plazan.

Urtero lez, udagoieneko baserriko produktuak erosi ahal izango dira bertan, ekoizleen salmahaietan. Barazkiak, eztiak, ogia, euskal pastela eta gozoak eta gaztaia, besteak beste erosi ahal izango dira bertan. Gainera, Mendieta Herri Kirol Taldeak, azkolarien erakustaldia antolatu dau 13:00etan.



IGORRE

Aulki hutsak dokumentala, Igorreko Liburutegiak antolatutako heriotza eta doluaren gaineko jardunaldietan

Erredakzioa

Zehemendiaren 8an, 19:00etan, Lasarte Aretoan Iñaki Peñaren dokumentala ikusteko aukerea eta zuzendariagaz solasaldia egongo da eta hurrengo egunean 11:00etan, liburutegian, heriotza eta doluaren gaineko adituen mahai-ingurua.

Igazko jardunaldien jarraipen moduan planteata dago aurtengo. Izan be, igaz Iñaki Peña Debagoineko Ospitalean Zainketa Aringarrietan lan egiten dauan medikuak zuzendutako *Mendian hil, hirian hil* dokumentala eskaini zan, eta jardunaldietan izan eban arrakastea ikusita eta jentek gehiago eskatu eban, Peñak gaiaren gaineko *Aulki hutsak* dokumentala be baeukala jakinda, Igorreko Liburutegiak aurtan be jardunaldiok antolatutea ebatzi dau.

Zehemendiaren 9an, zapatuko mahai-inguruan, Iñaki Peñagaz batera Marta Sariñena Salamero egongo da. Sariñena, galera, dolu eta trauma prozesuetan espezia-

lizautako psikologo eta terapeuta da eta biek, Peñak eta Sariñenak erantzungo deutsee publikoaren galderei. Publikoan, zainketa aringarrietako erizainak be egongo dirala azaldu deutso BEGITURI Irune Elexpe antolatzailleak, alkarrizketea bideratzen lagunduteko. Profesional honek, "bildurra arindu eta beste ikuspuntu batetik begiratzen deutsee gaixotasunari, heriotzeari eta doluari" dino Elexpek.

Bildurra arintzeko eta hiltan dagoanari laguntasuna emoteaz gainera, biziten lagunduteko be balio dabe jardunaldi honeetan entzungo diran testigantzak. "Profesional guztiek esaten dabe hiltan dagoana badakiala hiltan dagoala eta askotan hainbat gauza egin ez izanaz damututen dirala. Egin, egin behar da egiteko gogo daukaguna, ze ez dakigu bihar hemen egongo garan ala ez".



ARRATIA

ARANTZAZU

4.500 euro jaso dauz Caritas Bizkaia alkarteak Arratiako Koruaren eskutik



Erredakzioa

Arratiako Koruak Agate Deunaren bezperan batutako dirua, 4.500 euro, Caritaseri emon deutso Santa Ageda kantetan jasotako dirutik.

Agate Deunaren bezperan, Garazi Navasen zuzendaritzapean, Arratiako Koruak 73.ez, egin

eban bere ibilbidea Arratiatik eta Arratiatik kanpo santearen koplak kantetan.

Argazkian Arratiako Koruko Zuzendaritza Batzordeko Ana Teresa Sierrasesumaga eta Xabier Goioaga eta Elena Unzueta Caritaseko zuzendaria eta Maribel Salcedo IV. Bikaritzako sailburua agertzen dira.

Jatekorik ez botateko sukaldaritza tailerra antolatu dau AUMk

Erredakzioa

Elikagaien xahuketarik ez! izeneko kanpaina ipini dau martxan Arratiako Udalen Mankomunitateak. Kanpaina honen barruan, sukaldaritza tailerrak antolatu ditu jatekoen aprobetxamentua sustatzeko eta etxeetan sortzean diran hondakinak murrizteko aholkuak emoteko. Zehemendiaren 14, 22 eta 28an, 18:00etan, izango dira tailerrok, Arantzazuko Kultur Gunean. Izena 747 490 491 telefonoan edo arratia21@arratia.eus helbide elektronikoan emon daiteke.

Kanpaina honen helburua, baliabideen kudeaketa eraginkorra sustatzea eta Arratian sortutako hondakin organikoak nabarmen murriztea da. Baita, bitartean, egoera onean dagozan soberakinak ahalik eta gehien aprobetxatzea personak elikatzeke.

ARANTZAZU

Jaialdia antolatu dabe Arratiako eleizeak eta Caritasek Arantzazun

Erredakzioa

Zemendiaren 16an, 18:00etan, izango da "Pobreen eguneko" jaialdia Arantzazuko frontoian. Zozketarako txartelak salgai dagoz eta batutako dirua Egunon Etxera bideratuko da.

Oin dala zortzi urte hasi zan Arratiako Caritas pobrezia kontrako eguna ospatuten, urte bakoitzean Arratiako herri baten. Aurten Arantzazun izango da "Jaunaren bihotza, pobreen

egoitza" lemapean. Bertan, musika, antzerkia eta jantzialdiak ikusteko aukera egongo da. Animazinoa Eingo taldearen eskutik izango da eta amaitzeko txokolatea bizkotxoakaz egongo da.

Aurretik saldutako zozketarako txartelakaz batutako dirua Bilboko Caritasen Egunon Etxerako izango da. Proiektu hau eguneko zentro bat da, zaurgarritasun larrian dagozan edadeko pertsonen zuzendutakoa.



IGORRE

Aurrekontuetarako batzarrak egiten dabil EH Bildu Igorren

Erredakzioa

EH Bildu bilerak egiten dabil aurrekontu parte-hartzaileen gainean. Urri bigarrenaren 28tik zemendiaren 13ra, Igorreko EH Bildu auzoetako bizilagunak eta arlo desbardinatuko herritarrek bilerak egiten dabil aurrekontuen gainean berba egiteko "parte-hartze zuzenagaz sortutako aurrekontuetan sinisten dogulako" sare sozialetan jakinarazo dabenaren arabera. "EH Bildun gobernatzeko modu desbardin baten aldeko apustua egiten dogu, gardentasuen eta parte-hartzearen oinarrituta, non idea bakoitza kontuan hartzean dan

eta eta ahots bakoitza entzuten dan" gehitu dabe.

Lehenengo bilera Urkizu-Garakoin egin zan urri bigarrenaren 28an eta hurrengo egunean bilera bi, San Juan eta San Kristobalen, hain zuzen be. Beste sei egingo ditue: Zemendiaren 4an, Gezala, Basauntz eta Basarte auzotarrakaz 19:30ean Kultur Etxean; hilaren 6an, jubiladuakaz Bilgunean 18:00etan, eta 19:30ean, kirola eta kultura arloko alkarteakaz Kultur Etxean. Hilaren 11n, 18:00etan gazteakaz Kultur Etxean eta 19:30ean, hau be Kultur Etxean, Garbe eta Mikeleko auzotarrakaz, eta 13an, erdiguneko herritarrekaz Kultur Etxean 19:30ean.

IGORRE

Arratiako Andra Sortzaile eta Ekintzaileen Azokea egingo da Igorren hilaren 17an

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateko Berdintasun Sailak antolatuta, zemendiaren 17an, 11:00etatik 14:30era, Arratiako Andra Sortzaile eta Ekintzaileen Azokearen 4. edizioa egingo da Igorreko eskolako aterpean.

Azoka honen bidez, andre Arratiako sektore ekonomikoetan egiten daben lana ikusi arazo gura da. Hori dala-ta, azoka honetan lehen sektoreko eta artisautzako produktuak zein Arratiako andren edozein motatako negozioak erakutsiko dira. Zuzeneko musika be egongo da Inbigu taldeagaz.

Azokearen ondoan, kiroldegian,

eguerdiko 12:00etan, herri-kirol ekitaldia egongo da eta tartean, Urrezko Harrijasotze Binakako Andrazkoen Txapelketea.

Herri-kirolak

Urrezko Aizkolari eta Harrijaso-

tzaileen txapelketak jokatu dira Igorren egun horretan. Eusko Label Saria Urrezko Aizkolarien Kopako kanporaketa bat jokatu da. Baita Binakako Harrijasotze txapelketak be, andra zein gizonenak.



AREATZA/DIMA

Areatzan eta Diman euskerea sustatzeko plan estrategikoak egiten dabiz

Erredakzioa

Areatzan eta Diman, euskerearen kaleko eta etxeko erabilerearen jatsiereari aurre egiteko, euskerea sustatzeko plan estrategikoak egingo ditue eta horretarako galdetegiak zabaldu eta parte-hartzeak saioak antolatu ditue. Galdetegiok udalari heldu arazoteko azken eguna, zemendiaren 8a da Diman eta 20a Areatzan.

Areatzan, galdetegi QR baten bidez, https://labur.eus/Euskara_Areatzan estekan edo paperean bete daiteke udalaren. Plangintzearen estrategiak zehaztuteko eta eskaintzak identifiketako saio bi egingo dira udalaren abenduaren 3 eta 17an, 19:00etan.

Diman be galdetegi QR baten bidez, https://labur.eus/Euskara_Diman estekan edo



paperean bete daiteke. Paperean bete ezker, Udalean jarrita dagozan postontzietan itxi behar da. Plangintza estrategiak zehaztu-

teko eta ekintzak identifiketako saio bakarra egingo da Diman, zemendiaren 21ean, 18:00etan, udalaren, hain zuzen be.



JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre



GARRAIOA

EHUko ikasle talde batek galdetegi bat zabaldu dau garraio publikoko Arratiako preminak batzeako

Galdetegiaren emaitzak Arratiako Udalen Mamkomunitateari (AUM) edo Bizkaibus-eri heldu arazoko deusez, garraio publikoa hobetuteko eskatuteko.



Bihotz Lekuona, Elia Mendiolaigoitia eta Joseba Fresneda.

Erredakzinoa

Unibersidadera joateko zerbitzu eskasiagaitik sortu zan ekimena eta batez be, Leioako campusera zuzeneko zerbitzua lortzea dauka helburu. "Arratia da Bizkaiko eskualde bakarra ez daukana zuzeneko autobusa Leioako campusera eta orduak behar doguz heltzeako" azaldu deutso BEGITURI Bihotz Lekuonak Biologia ikasten dauanak Leioako campusean. Gasteizerako zerbitzua be hobetutea gura dabe, autobus zerbitzua pribadua dalako, frankizia batekoa, eta garestia. Donostiako campusera autobusik ez dago.

"Zornotzako autobusa Gernikatik dator eta askotan bete egin da Zornotzara heldu aurretik eta batzuetan ez da geldituten. Helduko ete naz, ez ete naz helduko, zalantzeagaz zagoz"

Aurreko ikasturtean, urtailetik bagilera, BideOn proiektu pilotuak ipini eban autobus bat Zeaurititik Leioako campusera, baina 2024-2025 ikasturtean ez. "Sano jente gitxi erabilten eban, 13 bat gehienez, baina normalean hiruzpalau lagunek. Kostua personako oso handia zan" azaldu deutse BEGITURI BideOn-etik. Oin, Arratiatik Zornotzara edo Lemoara eroaten dauz ikasleak BideOnen.

Ikasleei ez jakie urtenbidea irudituten hau. "Zornotzako autobusa Gernikatik dator eta askotan bete egin da Zornotzara heldu aurretik eta batzuetan ez da geldituten. Helduko ete naz, ez ete

naz helduko, zalantzeagaz zagoz. Eta autobusa Zornotzara geldituten bada be, zutunik joan behar da Leioaraino" dino Biologia ikasleak.

Bizkaibus

Beste eskualdeetan legez, Leioarako zuzeneko zerbitzua eskaini beharko leukela Bizkaibusek uste dabe ikasleek. Bilboko intermodalera joan eta han hartzean dabe unibersidadetarako autobusa. "Han jente asko egoten da eta askotan, jente guztia eroateko autobus gehiago ipini behar izaten dabe. Arratiatik zuzenean joango balitz autobus bat, arindu egingo litzateke hori" dino Elia Mendiolaigoitia Leioako Gizarte Zientzia eta Komunikazio Fakultateko Kazetaritza ikasleak.

Ikasleak bakarrik ez, ordu horre-

tan Bilborantza jente asko joaten da eta autobus zerbitzua hobetuteak jente askorentzat onuragarria izango litzateke uste dabe EHUko ikasleek. Eta akaso, orduetegi batzuetan, A3927 linea Leioaraino luzatutea nahikoa litzateke.

Beharrianak identifiketan

Momentuz, ikasleak egoerearen gaineko informazioa batzeako fasean dagoz. "Guretzat garrantzitsua da txostena egin baino lehenago, Arratiako jentearen arazoan barri jakitea eta ados dagoan jentea topatzea gero txostena idazteko. Oin Arratiako Institutura bialduko dogu inprimakia, gazteek bete dagien, ze datorren urtean eurak izango dira gure egoeran egongo diranak" dino Mendiolaigoitia.



ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Bilatu dago jantzi
-Solenton zein alaitarvan
Lurrak (jarkitza, landa, basoak...)
Etebide/izkor (jantzi, basoak, etxeak...)
Garajeak
Lokal komertzialak
Pabiloiak...
-Balaztioak

Bidatu dago proiektu
-Irakin berria erakitzeko
-Inelormak
-AKTibitate-proiektuak
-Barru diseinua
-CEE eta IIE-ak
-Hirigintza aholkularitza
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lanbideak: Agote 25, Leioa - 48100
Bilboak: 94 621 21 29 - 425 14 35 35
94 673 92 93 / 94 673 92 82
akademiak: 425 202 117
arratia@arratia.com

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

Kili~Kili
Anpas eta Puntuko
Lehendakari Agote 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 42 81

Olaetxe
OPTICA OPTICA

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazinoa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

TXIN-TXIMINI

• Tximinien garbi-ikuzia
• Ikuskapena telebista kamarakaz
• Txosten teknika
• Instalazioen erabarritzea eta mantenimentua

Telefonoa 657 77 94 58
info@txin-tximini.com
TXIN-TXIMINI.COM · Bizkaia

ETXEBIZITZAK. SARETZEN

Hamar familiatik zortzi bere jaubetzako etxebizitzan bizi da

Espanian, etxebizitzaren eskasia eta karutzeak, -espekulatzeko etxebizitzaren salerosketak etxebizitza nagusienak baino gehiago hazten doazelako, tartean- lan-baldintzen prekarizazioak ekarritako desbaldintasun ekonomikoaren arrakalaren handitzeak eta kolektibo batzuen biziteko lain emoten dauan lana topatzeko zailtasunek, besteak beste, ipini dabe jente asko egoera ekonomiko-sozial zaugarrian eta etxe barik geratzeko arriskuan. Hori dala-ta, etxebizitzaren eskubidea aldarrikatzen dauan mobimentu indartsu bat sortu da eta, atzen hilebeteen, jentea kaleetara atera da manifestazino jentetsuetan hainbat uritan.

Erredakzinoa

Euskal Herrian be egoera horretan gagoz? Eta Arratian? Zenbat etxe dagoz? Ze bilakaera izan dau etxebizitza parkeak? Zenbat etxe dagoz etxebizitza nagusiak ez diranak? Zenbat familia bizi dira alokairuan? Goranzko joerea dago? Zeintzuk dira Arratiako etxeen prezioak, salmenta eta alokairuan? Eta ezaugarriak?

Tokikom eta EITB datu kazetaritzako Saretzen proiektuaren eskutik, galdera horreei erantzuteko datuak dakarguz hona.

2023ko datuen arabera, Arratia, Ubide eta Zeberioko etxebizitza parkea 8.342 etxebizitzakoa da. Horreetatik 6.192n errolatuta dago jentea; hau da, bertan bizi dan edo diranen etxebizitza nagusia da. Datuon arabera, beste 2.150 etxebizitza dagoz etxebizitza nagusiak ez diranak; hau da, bigarren etxea diranak, hutsik dagozanak edo beste erabilera

bat daukienak (udalen emergentzia egoeretako etxeak, etxe turistikoak, eta abar). BEGITUREN eremuan, atzen hamarkadan, jatsi egin da etxebizitza nagusiak ez diran etxebizitza kopurua. Izan be, 2013an 2.476 ziran eta 2023an, 2.150. Baina asko izaten jarraituten dabe, etxebizitza guztien laurden bat gitxi gorabehera.

Etxebizitza nagusiak, jaubetzan ala alokairuan

Euskal Herrian, 10 familiatik 8 bere jaubetzako etxebizitza baten bizi da. 2023ko datuen arabera, Euskadin, %81,2 eta Nafarroan, %82,6, hain zuzen be. BEGITUREN eremuan be, mantenido egiten da porzentajea Arratia, Ubide eta Zeberion, batez beste %83,79 da. Herriz herri, jaubetzaren etxebizitzaren kuota handiena daukana Arantzazu da (%91,7) eta txikiena Areatza (%79,9).


Jaubetzaren kuota handia izan arren, atzen hamarkadan, 2013-

2023 gora egin dau alokairuan bizi diran familien ehunekoak: Euskadin %11,3tik %14,3ra igon da; Nafarroan, %12,6tik %13,7ra eta Espainiako Esta-


duan %15,4tik %18,7ra. Gurean barriz ia bardin mantenido da eta apur bat behera egin dau: 2013an, %10,68 familia bizi ziran alokairuan eta 2023an,


%10,35. Baina herriz herri eta beti be ehunekoetan, gora egin dau alokairuan bizi diran familiak, batez be Arantzazu, Areatza, Dima eta Igorren.

Alokairuan bizi diran familiak ehunekoetan



Etxebizitzaren edukitze erregimena 2023





Etxebizitzen salerosketea

Euskadi, Nafarroa eta Espainiar Estaduan etxebizitzaren salerosketeak izan dauan bilakaerea antzekoa izan da. 2007tik 2013ra, 6 urteko beheraldia egon zan, "higiezinen burbuilagaitik". Izan be, 2007aren aldean, 2013an, Euskadin salerosketak %60 murriztu ziran; Nafarroan %61 eta Espainiar Estaduan %65.

2013tik 2023ra egoerea hobetuten joan zan eta 2007an baino etxe gitxiago saldu eta erosten baziran be, asko txikitu zan arrakala. Holan, 2023an,

salerosketa operazioak 2007an baino %17 gitxiago ziran; Nafarroan %13 eta Espainiar Estaduan %24.


Bilakaera horretan, lau mugarri bereizten dira: 2007a etxebizitza salerosketen maila gorena; 2013a gitxieneko maila higiezinen krisiaren eraginez; 2014-2019 apurka suspertzeko fasea, pandemiara arte (2020-2021); 2022-2023 hobekuntza, batez be 2022an, 2023an apur bat atzera egiten dau eta.

Antzeko garapena izan dabe salerosketak BEGITUREN eremuan. Arratia, Ubide eta Zeberion,


2007an, 168 etxebizitzaren salerosketa egin zan; 2013an, 37 baino ez, eta 2023an, 111. Beraz, gurean be joera orokorra beteten da krisiaren osteko beheraldia eta atzen hamar urteetako higiezinen merkaduaren errekupezinoagaz, baina 2007ko zifretara heldu barik. Ha-ta guzti be, susperraldia beste lekuetan baino txikiagoa izan da, 2007an egindako salerosketa eragiketa kopurua %34 gitxiago izan ziran BEGITUREN eremuan.

Euskal Herrian, Gipuzkoak izan dau susperraldirik handiena, ondoren Nafarroak, Bizkaiak eta Arabak.

Etxebizitzaren salerosketak (eragiketa kopurua)




Etxebizitzaren salerosketa (eragiketa kopurua)



Euskal Herrian, 10 familiatik 8 bere jaubetzako etxebizitza baten bizi da. 2023ko datuen arabera, Euskadin, %81,2 eta Nafarroan, %82,6, hain zuzen be. BEGITUREN eremuan be, mantentzen egiten da porzentajea Arratia, Ubide eta Zeberion, batez beste %83,79 da

Euskadi, Nafarroa eta Espainiar Estaduan etxebizitzaren salerosketeak izan dauan bilakaerea antzekoa izan da. 2007tik 2013ra, 6 urteko beheraldia egon zan




Saltzean dan etxebizitza mota

Batez be bigarren eskuko etxebizitzak saltzean dira gaur egun. 2007an, ia erdi eta erdi zan banaketea etxebizitza barrien eta bigarren eskukoaren artean Euskal Herrian zein Espainiar Estaduan. 2008-2013 bitartean izandako krisiak eraikuntzaren sektorea gelditu arazo eban, batez be, etxebizitza barrien eraikuntza. Hori dala-ta, 2023an, etxebizitzen salerosketaren %86 Euskadin, %74 Nafarroan eta %91 Espainiar Estaduan, bigarren eskuko etxebizitzak izan ziran.

Honetan be, Ubideko datuen faltan, Arratia, eta Zeberion bigarren eskuko etxeen salerosketea %93,2 izan zan, %7ra be ez zan heldu etxe barrien salerosketea 2023an.

Bigarren eskuko/etxe barri salerosketak 2023



2023an saldutako ia etxe guztiak merkadu librekoak ziran. Arantzazun, Artean, Diman, Igorren, Zeanurin eta Zeberion saldu ziran guztiak merkadu librekoak izan ziran %97,6.

Beraz, Babes Ofizialeko etxebizitzak, Bedian %10; Areatzan, %9,1 eta Lemoan %2,6 bakarrik saldu ziran.

Euskal Herriari jagokonean, Arabak dauka babestutako etxebizitzen kuota handiena %6,4; gero Nafarroak %4,8; ondoren Gipuzkoak %4,3 eta

atzenik Bizkaiak %3,2.

Babes Ofizialeko etxebizitzak sustapen pribadu edo publikokoak (Etxebizitza Sailak konzertatuak) izan daitezke. Bizkaian, pribaduak etenbako gorakadea erakusten dau. Sustapena egonkorra izan da eta 2024an %100era ailegau da.

Atzen hamarkadan apenas ez da Babes Ofizialeko Etxebizitzarik eregi eta 2023an Euskal Herrian, saldutako etxebizitzen %5 baino gitxiago ziran etxebizitza babestuak.

Prezioa eta ezaugarriak


Etxebizitzen salerosketen prezioa, 2023an, batez besteko 2.957 euro m²koa izan zan Euskadin eta 1.927koa Nafarroan. Estaduko batez besteko prezioa 1.814 euro m²-ko izan zan. 2007ko prezioetara heldu ez dan arren, 2015etik etxebizitza salerosketen batez besteko prezioak goranzko profila erakusten dau. Euskadin, 2022tik 2023ra %3 igon da prezioa.

Etxebizitzen salerosketen prezioari jagokonean, BEGITUREN eremuko

Batez be bigarren eskuko etxebizitzak saltzean dira gaur egun. 2007an, ia erdi eta erdi zan banaketea etxebizitza barrien eta bigarren eskukoaren artean, Euskal Herrian zein Espainiar Estaduan. 2008-2013 bitartean izandako krisiak eraikuntzaren sektorea gelditu arazo eban, batez be, etxebizitza barrien eraikuntza



Babes Ofizialeko etxebizitzak sustapen pribadu edo publikokoak (Etxebizitza Sailak konzertatuak) izan daitezke. Bizkaian, pribaduak etenbako gorakadea erakusten dau. Sustapena egonkorra izan da eta 2024an %100era ailegau da



heriz herriko daturik ez daukagu, baina 2022ko datua emoten dau Eusko Jauriritzak Arratiako eremu funtzionalari jagokona; hau da Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuri bat eginda, herriz herri banandu barik. Metro koadroa, batez beste, 1.798 euroan saldu zan. Beste eskualdeen aldean, Bizkaiko eremu funtzionalerako batez besteko preziorik merkeena da hau.

Erkidegoan, 2023an, preziorik bajuena, Arabako Errioxari

jagokon, 976 euro metro koadroko; 1.000 euro m²-tik beherako balioa daukan espazio bakarra zan.

Uriburuek eta inguruko udalerririk handiek daukie m² garestiena: Donostiak 5.378 euro m², Bilbok 2.912 euro eta Gasteizek 2.556 euro.

Alokairuari jagokoenean, EAEn batez besteko alokairua 775 eurokoa da. Arabak dauka alokairurik merkeena, 716 euro; Gipuzkoak karuena 808 euro eta

Bizkaiak, barriz, 768 euro.


Alokairuen prezioak KPIa baino gehiago handitu dira. EAEn, 2016 eta 2023 bitartean, alokairuen prezioa %23 hazi da eta KPIa %19; Arratia-Nerbioi eskualdean barriz, 2016tik 2023ra 466,2 eurotik 558,4 eurora igon da, %19,77, ia KPIaren bardina.

Etxebizitzaren ezaugarriak jagokienean, Erkidegoko profila, 40 urte baino gehiagoko etxea, 80-95 m² ingurukoa eta igongailuagaz da. Baina uri edo


herri handietako etxeak eta landa eremuak, baserri askoz, ezaugarri desbardinak ditue. Gure eskualdeko etxebizitza motak ez dau bat egiten profil orokorragaz. Izan be, Arratia, Ubide eta Zeberio etxebizitzaren profila, 56 urtekoa eta 107,7 m²-koa da.

Igongailuari jagokonean, Arratia-Nerbioi da Bizkaiaren, etxeetan, igongailu gitxiak daukan eremua. Eremu honetan, etxeen %39,3k bakarrik daukie igongailua; Durangaldean, barriz, %71,2k.

Etxebizitzaren batez besteko urteak herriz herri



Etxebizitzaren batez besteko azalera



Zigor Folla: "Alde Zaharra zahar dago, orubeak erosi dira eta etxeak egin behar dira bultzadea emoteko"

Areatzak Alde Zaharra dauka eta hori desbardin egiten dau beste herrietatik. Alde batetik, etxeen ezaugarriak, eraikin bateko etxebizitzaren kopurua bera edo espazioa mugatua izatea, esate baterako, herri handiagoen antzekoa da, baina beste alde batetik herri txikia da eta ez daukazu uri handietan etxebizitzakaz gertatzen diran arazo bardinak.

Erredakzioa

Saretzen-en 2023ko datuen arabera, Areatzan 722 etxebizitza dagoz eta horreetatik 508 dira etxebizitza nagusiak. Udalak eta Areatza 1338 soziedade publikoak, babes ofizialeko etxeak ditue, batzuk saldutako eta beste batzuk alokairurako.

Zigor Folla Hernando alkateordeak kontau deusku zenbakien haragoko Areatzako egoera.

Areatzako Udalak eta Areatza 1338 etxebizitza publikoak kudeatzeako sortutako soziedade publikoak zenbat etxebizitza daukiez alokairuan?

Udalak alokairuan ipinteko 6 etxebizitza publiko daukazu. Horreetan persona batzuk bere sasoian etxe barik geratu ziran, eta Udalak bertan birkokatu ebazan. Etxe horreek libre geratzen diran heinean, alokairuan ipinten doguz.

Areatza 1338k, 9 etxebizitza daukazu alokairu sozialerako, eta beste 4 beste modu batean kudeatzen diranak. Horreetatik bi egoera berezian dagozan persontzat dira. Esate baterako, etxea eukita be, edadea edo beste errazoi bategatik euren etxeetan ezin diranean egon, irisgarritasun faltagaitik, hartzean dabez alokairuan etxe horreek. Beste bi ipini doguz salgai baina ez dira saldu eta datorren urtean ikusiko dogu zer egin: alokairuan ipini edo saldutako beste saiakera bat egin.

Alokairu sozialeko etxeak Etxebidieren zerrenda eta araudiakaz ipinten dira alokairuan.

Areatza 1338 sortu zan etxebizitzak kudeatzeko, beste gauza batzuen artean. Etxeak erosi ez, egin egin ebazan Eusko Jaurlaritzegaz batera. Karpon dagozanak eta Goi-kokalen dagoan beste eraikuntza bat dira. Horreek etxebizitzak egin egin ebazan Areatza 1338k. Gero, hor egon diran etxeak saldu egin ziran eta bloke bat geratu zan alokairu sozial moduan.

Zenbat saldu ziran?

Hiru bloke dagoz, bloke bakoitzean 9; beraz Babes Ofizialeko

"Udalak alokairuan ipinteko 6 etxebizitza publiko daukazu. Horreetan persona batzuk bere sasoian etxe barik geratu ziran, eta Udalak bertan birkokatu ebazan. Etxe horreek libre geratzen diran heinean, alokairuan ipinten doguz"

"Etxe bi ipini doguz salgai baina ez dira saldu eta datorren urtean ikusiko dogu zer egin: alokairuan ipini edo saldutako beste saiakera bat egin"

27 etxebizitza saldu ziran. Alokairu sozialean geratzen dira beste 9 eta holan mantendutea da gure asmoa.

Zenbat pagetan da alokairua?

Diru sarreren arabera. Hor Etxe-



Arratiako Andra Sortzaile eta Ekintzaileen IV. Azoka

Emakumeek bultzatutako proiektu ezberdinak ezagutuko ditugu

IGORREN

2024KO AZAROAK 17
11:00taik 14:30tara
IGORREKO ESKOLAN-
euria bada, ATERPEAN

ERDU, GOZATU TA GUREA ZAINDU!

Produktu ta zerbitzuak:
artisautza, bitxiak, jakiak, janzkiak, mokautxoak berton...

ZUZENKO MUSIKA ANIMAZIOAREKIN

bidek marketan ditu taula batzuk eta guk Etxebideren araudia erabilten dogu. Holan dagoz Karpoko 9 etxebizitzak, eta bardin Udalarenak diran beste 6 etxebizitzak be.

Irisgarritasun arazoakaitik alokairuan daukaguzan beste etxe biren hileko errentea 450 eurokoa da.

Areatzako 40-50 persona inguru dagoz Etxebideko zerrendan alokairu sozial baten bila. Egia da horreetatik, batzuk apuntu egin dirala baina gero igual ez dabenak gurako, beste etxe baten dagozalako edo euren egoera aldatu egin dalako. Jente asko apuntetan da Etxebidera baina gero igual topau dabe beste gauza bat.

Udalak badauka etxe hutsik?

Bai. Udalak eta Areatza 1338 soziedade publikoak Goikokalen daukaguz etxe bi, aurten 2024an, salgai ipini doguzanak. Baina ez ziran saldu eta oin momentuz hutsik dagoz.

Areatzan ez dago etxe turistikorik, ezta?

Bai bat daukagu, besteak landetxeak dira.

Merkadu librean badagoz etxeak alokairuan?

Bai, alokairuan badagoz nahikotxo eta batzuk salgai be bai. Alokai-

ruan jente nahikotxo bizi da baina nahiko beteta dago, alokatzeko etxe gitxi dagoz. Esango neuke eskaerea eskaintza baino handiagoa dala.

Ze egoeratan dago merka- dua? Etxebizitza nahikoa dago jenteak aurre egiteko moduko prezioan ala etxebi- zitza faltea dago?

Jenteak esaten dau etxebizitza faltea dagoala. Baina ez dakit zer esan. Harritu ninduan etxebizitza bi horreek salgai ipini eta inok ez ebazala erosi ikusteak. Prezioa ondo egoan 160.000 euro eta ez ziran saldu. Interesa agertu eben batzuek baina gero ez eben aurrera egin.

Orduan ez dakit zer esan.

Egia da Areatzan dagozan aukerak dagozanak dirala eta etxe askorik ez dagoala. Eta Alde Zaharreko etxebizitza batzuk ez dagoz bertan biziteko moduan eta hutsik dagoz.

Etxebizitza batzuk hutsik da- goz Alde Zaharrea orduan.

Bai. Alde Zaharrea arazo bat daukagu: egoera oso txarrean dagoz etxe batzuk eta ezin da bizi han. Urteak abandonauta egon dira eta obra handia egin behar dabe. Udalak erosi egin dauz bo-

tateko egozan lau etxe. Oin gabiz eraispena egiten. Gure asmoa da, Eusko Jaurlaritzaren bitartez, hor etxeak egitea, etxe sozialak alokairuan ipinteko.

Orduan aurrera begira pentse- tan dozue etxe gehiago erostea.

Momentuz ez. Hor 3 bloke egitea dagoz aurreikusita. Baina horretarako oindino denporea falta da, oin gabiz derriboa egiten. Helburua da horrezaz baliatzea Alde Zaharri bultzadea emoteko.

Lehen etxeak egozan lekuan egingo dozuez etxeak. Beste lekuetan ez?

Areatza nahiko mugatuta dago eta ez dauka aukerarik etxe gehiago egiteko. Eta kontuan hartu behar da ze tamainutako herria gura dogun. Ointxe gabiz HAPOa egiten eta momentuz, lehendik etxeak egon diran lekuak dira etxe barriak egitekoak.

Guk argi ikusten dogu ez dogula gura etxebizitza bakarrek etxeak egin. Alde Zaharrea barruan ez behintzat. Alde Zaharrea daukaguzan etxeetako tamainukoak izan behar dira eta ez familia bakarrek. Azken baten, horreek espazio asko hartzean dabe eta etxebizitza gitxi egin daitezke.



ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO

SAREAN HARRAPAU?

GERO ETA GEHIAGO GARA!



1.484 JARRAITZAILE



430 JARRAITZAILE



2.590 LAGUN

begitu
EUS





- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57 **Igorre (Bizkaia)**



eraiketak@construccionesekin.com



BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartek, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus



ARRATIAKO EGOITZA

Gizarte- eta osasun-arreta jarraitua eta pertsonalizatua

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO HERRI ERAKUNDE AUTONOMOIA

IBARRA AUZOA, 17 DIMA
94 631 57 76



Elikagaien xahuketarik EZ

ARRATIA GARBIA

NO al desperdicio alimentario

ARRATIA GARBIA kanpainaren barruan, elikagaien xahuketari aurre egiteko proiektu bat garatuko dugu. Baliabideen kudeaketa eraginkorra sustatzea eta Arratian sortutako hondakin organikoak nabarmen murriztea da helburua. Baita, bitartean, egoera ezin hobean dagoen soberakina ahalik eta gehien aprobetxatzea: gehien behar duten pertsonak elikatzeko.

Sortzaile nagusiak

Elikagaiak alferrik galtzen dituen enpresa bat bazara, proiektuari eta parte hartzeko moduari buruzko informazio gehiago jaso dezakezu, posta elektronikoaren bidez harremanetan jarritz.

✉ arratia21@arratia.eus

Ostalaritza eta merkataritza txikia

Ostalaritzako lokal bat edo elikaduraren sektoreko tokiko saltoki bat bazara, informazioa zabalitzeko whatsapp kanal bat sortu dugu, eta hainbat baliabide partekatuko ditugu.

📞 Sarta kanalan QR hau eskaneatu



Gizarte-erakundeak

Soberakina jaso nahi duen erakunde bat bazara, proiektuari buruzko informazio gehiago jaso dezakezu, baita nola parte hartu ere, posta elektronikoaren bidez harremanetan jarritz.

✉ arratia21@arratia.eus

Herritarrak

Arratiako herritar guztioz gonbidatuta zaudete gure kanal digitaletan jarraitzera, proiektuaren barruan garatuko diren jarduerak eta programen berri izateko.

📱 [@arratiagarbia](https://www.instagram.com/arratiagarbia)



Proiektua babesten dute:



AZKOREA



Irati Astondoak Euskal Herriko Aizkora Txapelketako finala jokatu eban

Erredakzioa

Nerea Arrutik bere hirugarren txapela lortu eban Elgoibarren urri bigarrenaren 20an. Urrietako azkolaria aurkariak baino askoz gehiago izan zan eta pronostikoak bete ziran. Arrutik bere hirugarren garaipena lortu eban Euskal Herriko andrazkoen txapelketa eta Nerea Sorondok txapelketa honetan lortutako txapel kopurua bardiñu dau.

Arruti, gainerako parte-hartzaileak baino askoz gehiago izan zan. Txapelkunak bi kanaerdiko eta 45 hazbeteko enbor bi eta 36 hazbeteko beste bi ebagi ebazan 17 minutu eta 33 segundotan, eta hurrengo sailkatuak, Nerea Sorondok, urnietarrak baino hiru minutu eta erdi gehiago behar

izan zituan. Nafarrak igaz lortutako bigarren postua errepetidu eban holan.

Hirugarren postua lortzeako burrukeak lehia parekatua itxi eban Oihana Fernandez de Barrena arabarraren eta Laiene Pikabea 21 urteko hernaniarraren artean. Atzenean, hirugarren postua gipuzkoarrentzat izan zan, bere aurkaria 17 segundotan gaindituz.

Lucia Orbek bosgarren postua lortu eban eta Irati Astondoak, bere aldetik, txapelketa honetako seigarren edizinoko sailkapena itxi eban. Zeanuriztarrak, "Euskal Herriko Txapelketa! Txiripaz pasau nintzan eta ikusi da ze maila dagoan! Zorionak parte hartu dogun danori eta zelan ez txapelkunari" adierazo eban sare sozialetan.

SOKATIREA

Areatzan jokatu da Bizkaiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketako lehenengo jardunaldia

Erredakzioa

Talde mistoak izango dira hau da, andrazkoak eta gizonzkoak egongo dira talde bakotxean, zemendiaren 16an, 17:30ean, Areatzako frontoian. Bost talde neurtuko dira 580 kiloko kategorian. Abadiño A, Abadiño B, Forua, Gaztedi eta Goiheri.

Txapelketak hiru jardunaldi ditu: lehenengoa Areatzan, hilaren 16an; bigarrena, Lezaman, 30ean eta finala Abadiñon abenduaren 14an.

Tiraldiak hasi baino ordu bi lehenago egon behar dira kirolariak frontoian taldeak pisatzeko.



MARATOI TXIKIA

Mikel Gilek eta Goiatz Agirrek irabazi eben Arratiako Maratoi Txikia

Erredakzioa

Mikel Gil ugaoztarragaz batera, Jonan Bilbao markinarrak eta

Arantzazuko Youness Aesehlik osotu eben gizonzkoen podiuma. Goiatz Agirre Elgetako korrikalariaren ostean, Zeanuriko

Miren Ozerinjauregi eta Igorreko Onintze Petralanda sartu ziran helmugara, bigarren eta hirugarren eginda. 60 urtetik gorako beteranoentzat be egon zan saria eta Bilboko Iñaki Sanchez eta Dimako Gotzone Larrorirentzat izan zan. Arreatik Igorrerako 6 kilometroko lasterketan barriz, Unai Montejok eta Maialen Zautuak jaso eben garaikurra.

Eguraldiak lagundu eutsien korrikalarietara. Nahiz eta urri bigarrenaren 27an, goizeko lehenengo orduetan euria egin, proba hasi orduko atertu egin eban eta giro freskoa aproposa izan zan lasterketarako. Holan, antolatuzteak espero baino jente gehiagok hartu eban parte; batez be umeen probetan eta pozik agertu ziran partaidetzeagaz. Arratiako guraso alkarteek antolatuten dabe lasterketa herrikoia hau; aurtan, Igorreko Udala eta Arratiako Ziklista Elkartearen laguntzeagaz.



Gizonzkoen podiuma goian eta andrazkoena behean.

FUTBOLA

Lemoako Harrobik lehen garaipena lortu dau eta gizonzkoen Arratia A lider da

Erredakzioa

Gizonzkoen Arratia B taldeak izan ezik beste talde guztiek garaipena lortu dabe atzen jardunaldian. Aitatzekoa da Lemoako Harrobik etxetik kanpo Usansoloko Umore Ona A, momentuan lider zan, taldearen kontra lortutako garaipena.

Lemoako Harrobik hilaren 1ean jokatu eban Usansoloko Umore Ona A taldearen kontra eta ligako lehen partidua irabaztea lortu eban, zelan gainera, lidertzan egoan Umore Onaren kontra 0-4 irabazita.

Urri bigarrenaren atzen astean Imanol Millán eta Jon Ruizek entrenatzaile kargua itxi eben eta Usansoloko Eneko Etxebarria kirol arduradunak eta Alex Salazar delegaduak hartu eben taldea zuzentzeko ardurea. Zazpi jardunaldien ostean 5 puntu ditu Lemoako taldeak eta hamaseigarren postuan dago, jatsiera postuetatik urtetea lortu dabe. Datorren partidua Arlonagusian jokatu dau Ezkurdi A taldearen kontra, hilaren 9an, arrastiko 17:00etan.

Uriolak Valentzian

Pasau dan astean Valentzia eta inguruetan izandako uriolak diralata Lemoako Harrobik zemendiaren 4, 5 eta 6an materiala batuko dau

Arlonagusia zelaian 17:00etatik 20:00etara kaltetuei laguntzeko. Hau da eskatzen dabena: gel hidroalkoholikoa, palak, baldeak, lanerako eskunarruak, linternak, pilak, mantak, kandelak, posporoak, umeentzako esnea, mosukoak eta erratzarrak.

Arratia

Gizonzkoen Arratia A taldeak hilaren 1ean jokatu eban Urbietan lurretako A taldearen kontra eta 2-0 irabazi eban. Zazpi jardunaldien ostean 16 puntu ditu Arratiak eta lidertzan dago barriro. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Elorrio taldearen kontra hilaren 9an, arrastiko 16:00etan.

Gizonzkoen Arratia B taldeak hilaren 2an jokatu eban etxetik kanpo Galdakao B taldearen kontra eta 4-0 galdu eban. Zazpi jardunaldien ostean 11 puntu ditu Arratia Bk eta bederatzigarren postuan dago. Da-

torren partidua etxean jokatu dau bigarren postuan dagoan Usansoloko Umore Ona A taldearen kontra hilaren 9an, arrastiko 16:00etan.

Andrazkoen Arratia Ak hilaren 2an jokatu eban etxetik kanpo eta 0-1 irabazi eban UD Logroñes taldearen kontra Irati Artaraz bediazarrak 17. minutuan sartutako golari esker. Bederatzi jardunaldien ostean 20 puntu ditu Arratia Ak eta hirugarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokatu dau bigarren postuan dagoan Athletic C taldearen kontra hilaren 9an, eguerdiko 13:30etan.

Andrazkoen Arratia Bk be hilaren 2an jokatu eban etxean Paldarrak B taldearen kontra eta 3-2 irabazi eban. Bost jardunaldien ostean 12 puntu ditu Arratia Bk eta hirugarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Bilbao Artizarra C taldearen kontra hilaren 9-10eko astegiaren.



Lemoako Harrobiko jokalariek Umore Ona Aren kontrako partiduan.

KIROL ASTEA



Astebete eta hiru egun Lemoako Kirol eta Ariketa Fisikoaren Astean

Zemendiaren 11tik 17ra izango da Lemoako Udalak, alkartean laguntzeagaz antolatutako Kirol eta Ariketa Fisikoaren astea, baina hurrengo bariku-domekarako be jarduera fisikoa bultzatzeko ekintzak antolatu ditue.

Erredakzioa

Urtero lez, Kirol Asteko domekan, hilak 17, Lemoatx Trail mendi lasterketea izango da.

Kirol ugari erakutsiko dira bakotzak bere gustukoa topau dagian eta kirola danontzat izan behar hori azpimarratzen dau egitarauak. Holan, edadekoentzat hainbat jarduera dagoz: ibilaldi gidatua, astelehenean; tailerra martitzenean; gaztetxoentzako berbaldia egunean eta bizikleta martxa zapatuan; edade guztietako jentearentzako atletismo masterclass-a, kirol inklusiboa landuko da eta ikusgarritasuna emongo jakie andra pelotariei, beste ekintza batzuen artean.

Egitaraua

Zemendiak 11, astelehena

09:30etan, ibilaldi gidatua helduentzako 1936ko Gudarien Parketik. 19:00etan, Mikel Erdozain eta Maria Folgadoren berbaldia *Ametsak betetzeko bidea* Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiak 13, eguaztena

18:00etan, *Aldapa osasuntsuak* tailerra helduentzat 1936ko Gudarien Parkean.

Zemendiak 14, eguena

10:30etan, DBHko 3. eta 4. mailakoentzat, Ibon Oregiren berbaldia *Aparretan bizi* Kotxepin Kultur Etxean. 19:00etan, Lemoako Binakako II. Pentatloia kiroldegian. Izen-

emotea kiroldegian eta Athionen.

Zemendiak 15, barikua

17:00etan, Atletismo Masterclassa edade guztietarako ikastetxean. 18:30etan, Dantzan plazaz plaza Durundi Barri Dantza Taldearen eskutik, Plaza Gorrian.

Zemendiak 16, zapatua

11:00etan, Lemoa Txirindulari Elkarrekin antolatuta, bizikleta erakustaldia Luis Zubero Skill Park-ean. 17:00etan, 12-16 urte bitartekoentzat *Bizikletak martxa: mundu hobe baten aldeko martxa* Lemoa-Usansolo Gazteleketik.

Zemendiak 17, domekea

Lemoatx Trail. 08:00etan, mendi marxa luzea (25 km); 09:15etan, lasterketa luzea (25 km); 10:00etan, lasterketa laburra (17 km); 10:45etan, mendi marxa familiar (8,5 km). Ikastetxetik urtenda.

Zemendiak 22, barikua

16:30etan, 6 eta 9 urte bitartekoentzat, *Kudeaketa emozionala: eskola-jazarpenaren aurkako borroka eta balioak* Gazterleak egoitzan (Lehendakari Agirre, 1).

Zemendiak 23, zapatua

10:00etan, *Autobabesa, kirol inklusiboa, osasuna eta ongizatea* kiroldegian.

Zemendiak 24, domekea

17:00etan, andra pelotarien eguna kiroldegian.

PELOTEA

Danel Elezkano pelotariak jokatzeari itxi deutso, osasunak aginduta

Pelotariak, sare sozialetan jakinarazo eban ezin izango dauala gehiago jokatu, "ez profesional, ez beste era batera, gorputzak oihuz, nahikoa dala" esan deutsalako.



Erredakzioa

Izan be, lesinoak osatu ezinik hilebeteak eroiazan Elezkanok. Holan, urri bigarrenaren 16an, 12 urteko ibilbide profesionalari emon deutso amaieraa Dima eta Zaratamo artean bizi dan pelotariak.

Medikuz mediku ibili arren, lesinoek txarrera egin eta ez bakarrik kirola, eguneroko bizitzan be eragiten deusiela aitortu dau pelotariak komunikaduan. "Azken

urte hau infernua izan da niretzat" dino eta jokatzan saiatu izan dan arren, kantxetara bueltetea ez dala posible izango azaldu dau. Hori dala-ta, ezin izango dau atzen partidurik jokatu.

Derrigor hartu beharreko ebatzi honek, pelotea ixteak, hain zuzen be, pena handia emon deutso Elezkanori, baina aldi berean, eskerrak emoten deutzaz urte honeetan guztietan ezetutako hainbat personari; Arratiakoak,

tartean. "Eskerrik asko nire bihotzeko herri biei, Zaratamori eta Dimari, peloteari behar dauan garrantzia, ikusgarritasuna eta erraztasunak emoteagaitik". Bere prestatzaile fisikoa izandako Aitor Erazkin Lemoakoari eta beragaz botilero ibilitako Ekhi Ziarrusta Dimakoari be emoten deutsez eskerrak. Baita, Zaratamo Upo mendi taldeari eta Galdakaoko Adiskide taldeari, Asegarce eta Asperi, aurkari edo bikote izandako pelotariei eta zaleei, besteak beste. Lagunei eta familiari aitamen berezia egiten deutse pelotariak agur esateko komunikaduan.

2019an eta 2021ean, binakako txapelkun

Danel Elezkanok 2012ko abuztuaren 18an hasi eban ibilbide profesionala Bilboko Bizkaia pelotalekuan. Lehenengo urteak Asegarcen egon zan eta 2016tik aurrera, Aspen. 2019an, eta 2021ean lortu ebazan emaitzarik onenak, Binakako Txapelketea irabaziz. Lehenengo txapela, Rezustagaz irabazi eban, Irribarria eta Zabaletari irabazita; eta bigarrena, Zabaletagaz, Peña eta Albi-suren kontrako finalean.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrak taldeak partidu bat irabazi eta bi galdu ditu liga hasikeran

Erredakzioa

Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrak taldeak irabazten hasi eban ligea baina bigarren jardunaldian, urri bigarrenaren 27an, 17-10 galdu eban Iruñeako La Unica Rugby taldearen kontra eta hirugarrenean, hilaren 2an, 53-7 galdu eban Logroñon Envases R.C. Rioja taldearen kontra. Hiru partidu jokatu ostean sailkapenean bosgarrenpostuan dagoz zekorrak eta 6 puntu ditue.

Urri bigarrenaren 27ko partiduz Ekaitz Duñabeitia entrena-tzaileak BEGITURI azaldu deutzanez, arratiarrek ezin izan eben euren jokorik onena praktikan ipini. "Lupetz asko eta zelai txikia" zan eta lehenengo zatian "nahiko eskas" ibili zan taldea. Halanda be, bigarren zatirako izartu eta partiduan



sartu ziran arratiarrek. 10-5 joiazan eta bardiduteko aukera batzuk izan ostean, Iruñeakoek beste entsegu bat sartu eben. Holan, partidua ebatzita geratu zan, nahiz eta amaieran, arratiarrek beste

entsegu bat lortu.

Datorren partidua be, hirugarrena jarraian, etxetik kanpo jokatuko dau Igorreko taldeak hilaren 9an, arrastiko 16:00etan, Iruña R.C. taldearen kontra.

IRAKURLEEN TXOKOA

Alaine Agirrek bideratuko dau Arteako Irakurleen Txokoa

Erredakzioa

Zemendiaren 8an, 19:00etan, Arteako Kultur Etxean, Irakurleen Txokoa Karmele Jaioren *Orain hilak ditugu* (Elkar, 2015) poema liburua landuko dau, Alaine Agirre idazleak bideratuta. Aurten, Alaine Agirrek bideratuko dau Arteako Irakurleen Txokoa.

Karmele Jaio Eiguren (Gasteiz, 1970) idazlearen narratibek jaso ditu Euskal Herriko literatura saririk garrantzitsuenak eta ezagunena da publikoarentzat. Esate baterako, *Amaren eskuak* (2006) eleberririk Zilarrezko Euskadi Saria jaso eban eta arrakas-

ta handia publikoan. Gaztelaniaz, ingelesez eta alemanieraz argitaratuta dago. Euskadi Literatura Saria be jaso eban 2020an, *Aitaren etxea* nobeleagaitik. Bere azken eleberririk be, *Maitasun kapitala* (2023), oso harrera ona izan dau publikoaren aldetik.

Baina bere poesia lana ezezaguna da publiko gehienarentzat. *Orain hilak ditugu* poemarioan hainbat gai jorratzen ditu Jaiok: denporearen igarotzeak sortzean dauan mina, galdutako pertsonen itxitako hutsunea, desiraren itzaltzea eta egunerokotasunaren gazi-gozaok, besteak beste, estilo landu eta hurreko baten.



Karmele Jaio.

KONTZERTUA

Blas Fernandez bateria-joleak kontzertu didaktikoa eskainiko dau Lemoan

Erredakzioa

Zemendiaren 8an, barikua, 20:00etan, Blas Fernandez musikari eta bateria irakaslea egongo da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, *A solas con la bateria* izeneko kontzertu didaktikoa eskaintzeko.

Fernandezek ibilbide luzea

dauka musika munduan eta, beste askoren artean, Gontzal Mendibil, Kepa Junkera, Benito Lertxundi, Mikel Urdangarin, Alaitz eta Maider eta Olatz Zugasti artistakaz jo dau. Fernandezen ibilbidea eklektikoa da eta musika estilo asko batzean ditu: jazz-a, funk-a, folk-a, blues-a eta pop-a, esate baterako.



KONTZERTUA

Rock amerikarra blues eta soul ikutuagaz, Artean

Erredakzioa

Zemendiaren 10ean, 13:30ean, Arteako Herriko Bentan, Bilboko Amann & The Wayward Sons taldeak joko dau.

Taldeak lau disko ditu kalean, atzena *When The Day Goes Slow*, aurten argitaratuta. Disko hau, Mondo Sonoro-ren arabera, "rock amerikarrekotatu indartsu eta ikaragarria da, musika honen jatorrizko zuztarrak sakon zuzutzen dituan". Taldeak 1970. hamarkadako rock amerikarra, blues eta, batez be, soul doinuakaz jotzen dau.



BERTSOLARITZEA

Arratiako bost bertsolarik hartuko dabe parte Bertsolari Gazteen BBK Sariketan

Erredakzioa

Bertsolari gazteak plazaratzea helburu daukan sariketa honek 32 urte beteko ditu aurten eta edizino honetan, 18 urte artekoen moltoan, Arratiako bost

POESIA

Igorren aurkeztuko da Blas de Oteroren poesiaren antologia euskeratua

Erredakzioa

Zemendiaren 15ean, 20:00etan, *Una letra impagada-Ordaindu gabeko letra bat* Blas de Oteroren poesiaren antologia elebiduna, aurkeztuko da Igorreko liburutegian. Bertan egongo da Jose Fernandez de la Sota Blas de Otero Fundazioko presidentea. Poesia hegalaria taldekoek, antologiako poesien errezitaldia egingo dabe euskeraz.


El Gallo de Oro argitaletxeak argitaratu ditu Blas de Oteroren (Bilbo, 1916-Majadahonda, 1979) poemak euskeraz lehenengoz. Poeta sozialaren bete bako nahia zala dinoe. Izan be, "ordaindu bako letrea zan beretzat ostendu jakon eta inoz euki ez eban ama hizkuntzea: euskerea". Blas de Otero bizirik zala, bere lagun Gabriel Arestik itzuli eban poemaren bat. Jose Fernandez de la Sotak gauzatu gura izan dau poetearen desira hori eta horren emaitza aurkeztuko da Igorren. Euskal idazlerik onenak euskeratu ditue poemok: Gabriel Arestik, Bernardo Atxagak, Joseba Sarrionandiak, Miren Agur Meabek, Gerardo Markuletak, Felipe Juaristik, Leire Bilbaok, eta Kirmen Uribeke, beste

batzuen artean, hain zuzen be.

Beste alde batetik liburua oso biografikoa dala dino Pablo Cabañas Poesia hegalaria taldeko kideak. Blas de Oterok berak itxitako argazkiakaz ilustratuta dago eta bertan poetearen bizitzako hain ezagunak ez ziran zehaztasunak ikusi daitezke; "gaztetan pelotan jokatutea gustetan jakola" esate baterako.

Poesia hegalaria

Pablo Cabañas, Irune Elexpe, Ana Juez, Carmen Martinez eta Javier Arnaiz Poesia hegalaria taldeko rapsodek deklamauko dabez Oteroren poemak euskeraz, Iker Allur, Alberto Egia eta Jose Ignacio Maestre musikariaren musikeagaz lagunduta. "Lehenengo aldia da, Blas de Oteroren poemak euskeraz entzun ahal izango dirala. Eta Igorren izango da" dino Irune Elexpe Poesia hegalaria taldekoak.



Taldeak osotuteko erispide nagusia ez da bertsolarien eskualdea eta horregaitik talde desbardinatzen dagoz Arratiakoak. Hiru bertsolarik osotuten dabe talde bakotxa.

Enara Gallastegi Xarmengarriak gira taldean dago; Ekhi Zuluaga eta Iradi Barrenetxea, Puntu eta koma izenekoan, eta Arrakalak loratun, Malen Bilbao eta Aiala Irurtia.

Zemendiaren 4an hasiko da sariketea eta abenduaren 5ean jokatuko da finala, Zornotzan.

Igorreko saioan, AP8ko txikia eta Arrakalak loratu taldeak neurtuko dira.

ANTZERKIA

Ausentzia eta denpoerearen joanaren gaineko hausnarketea familientzako antzerkian

Erredakzioa

Pájaros Pintados konpainiak *Olaia*ren lorategia antzezlanak dakar Igorreko Lasarte Aretora zehazkiaren 16an, arrastiko 18:00etan. Adin guztietako pertsoneri zuzendutako antzerki ikuskitzuna da, falta direnei buruz modu poetikoan berba egiten dauana.

Sinopsia

Udabarriko lehen eguna da eta Olaia lorategira itzultzen da jaiotzen ikustera, neguak itxitako hondakinak garbitzera. Baina Olaia ez dago bakarrik, lorategi honetan familiako andreka belaunaldiz belaunaldi landutako oroitzen dira. Ausentzietan eta denpoerearen joan-etorrian egindako bidaia dogu hau, agurraren bidez eta haurtzaroko maskotakaz, aitita-amamakaz, gurasoakaz eta gure sustraia kaz barriro alkartzearen bidez egindakoa. Egunez egun, urtez urte eta lorez lore, udabarriko barri baten itxaropena gordetzen dogu beti.



KONTZERTUA

Mugan taldeak Igorreko Lasarte Aretoran joko dau



Erredakzioa

Zehazkiaren 9an, zapatuan, 20:00etan eskainiko dau emonaldia Kultur Etxean.

Taldea bere atzen proiektua, *Aurrera ez den alde batera* (2023) aurkezten dabil. Proiektuak frustrazioaren gainean hausnarketea egiten daben zazpi kantu biltzean ditu eta horreen arteko loturea egiteko narrazioa sortu dabe. "Asetu ezina izateak, lantzean behin berbideratzeko beharra dakar. Eta bide horretan, frustrazi-

noak paper garrantzitsua jokatzen dau" dinoe.

Kantu melodiko eta indartsuak dira *Aurrera ez den alde batera* diskoa osotuten dabenak.

Mugan

Mugan taldea Donostian sortu zan 2019an eta 2022an *Bizirik ez bagaude* izeneko diskoa kaleratu eban. Pop-rock eta folk estiloko musikea egiten dau. Pablo Zurutuza, Joseba Pastor, Enara Rodriguez, Markos Murua, Ene-riz Genua eta Ander Murua dira taldeko kideak.

ERAKUSKETEA

Lemoako Leire Iturberen lanak ikusgai egongo dira Igorreko Kultur Etxean



Erredakzioa

Zehazkiaren 7tik 21era, *Munduari begirada bat* izeneko erakusketan, Leire Iturbe margolariak 2014 eta 2024a artean egindako lanak ipiniko ditu ikusgai Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Algotakoa jatorriz, oin dala 10 urte Lemoara etorri zan biziten Iturbe eta Arratian bizi danetik sortutakoa egongo da ikusgai. "Inspiratzen nauanaren gainean margozten dot eta edertasuna bizten dau nire begiradan. Egunerokotasunaren edertasunak mobidu arazoten nau. Suposatzen dot nire lanek nire bizitzako uneez egiten dabela berba. Nire aldarrearen eta une horretan biziten nabilanaren arabera, beste une baten oharkabean pasauko ziran edo gertatuko ez ziran zenbait gauza ikusten dodaz eta inspiratzen nabe" dino egileak erakusketeari buruz.

BAZKIDETZEA

Igorreko Kultur Etxeko bazkide txartela egiteko kanpaina abian

Erredakzioa

Igorreko Kultur Etxeko bazkide izateko urteroko kanpaina martxan dago. Abenduaren 16ra arte lagun txartela 5 euro merkeago izango da. Holan, norbanakoez 25 euro pagau beharko dabe; familiako lagun txarteleko 20 euro kide bakoitzak eta 14 urtetik beherakoentzako prezioa 15 eurokoa izango da kanpainak dirauan bitartean.

Txartela, 2025eko urtailaren 1ean hasi daiteke erabilten. Lagun-txartelak onura honek dakar: Lasarte Aretoko ikuskitzuntan %25eko deskontua, lau film eta Lasarte Aretoko aukeratuak beste ikuskitzuntan %15eko deskontua eta programazioa norbere etxean jasotea.



DUNBA

Zeanuriko Arimen Gaua

Zeanuriko eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Aupa Arratia, zelan doa eguna? Espero dogu ondo joatea eta bestela lasai, barri honegaz poztasuna dator eta! Hemen gagoz Zeanuriko ikasleak gure herriko Gau Baltza zelangoan dan azalduteko eta zuok be disfrutatuko!

Egun bildurgarri honeri era askotara deitzean jako: Arimen Gaua, Gau Baltza... baina argi dagoana da, danok sano gustuko dogula!

Zeanuriko umeak sano urduri egon gara eta danok euki dogu gure moxorroa prest!

Urri bigarrenaren 31n, lagunak etxeetan alkartzuten gara janzteko, arpegia margotu eta 18:00etarako plazara joaten gara. Bertan musikea, jolasak eta ekintza desbardinak topetan doguz. Jana eta edana be egoten da: berakatz-zopea, krepak, txokolata...

Beranduago kobazuloa zabalduen dabe, bertara sartzeako asko itxaron behar da eta zure txandea danean barrura sartu



eta... Jakin gura badozue etorri Zeanurira!

Espero dogu zuetako asko gure herrian ikustea!

AGENDA

**ZEMENDIAK 4
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Hilaren 20ra arte, euskera sustatzeko plan estrategikorako galdetegia bete daiteke https://labur.eus/Euskara_Areatzan estekan edo udaletxean.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Hilaren 8ra arte, euskera sustatzeko plan estrategikorako galdetegia bete daiteke https://labur.eus/Euskara_Diman estekan edo paperean eta udaletxeko postontzian itxi.

Hilaren 11ra arte, izena emon daiteke Jai Batzordean parte hartzeako dimekojaitatzordea.2.0@gmail.com helbidean.

Hilaren 11ra arte, 12an eta 14an izango dan helduentzako ipuin kontalaritza tailerrerako izena emon daiteke udaletxean edo barikutxiki.dima@gmail.com helbidean.

IGORRE

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era. Publikoari arretea: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Abenduaren 16ra arte, Igorreko Kultur Etxeko bazkide izateko kanpaina.

19:30ean, Gezala, Basauntz eta Basarteko auzotarrak EH Bilduren aurrekontuen gaineko bilera Kultur Etxean.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

UBIDE

08:00etatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Hilaren 7ra arte, hurrengo egunean zerbitzua emongo dauan podologoarenganako izen-emotea udaletxean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**ZEMENDIAK 5
IGORRE**

17:00etan, *Autozaintzarako estrategiak* ikastaroko saioa Kultur Etxean.

**ZEMENDIAK 6
IGORRE**

11:30ean, Bertsolari Gazteen BBK Sarietako saioa. Taldeak: AP8ko txikia eta Arrakalak loratu. Institutuan.

18:00etan, EH Bilduren aurrekontuen gaineko bilera jubiladuak Bilgunean; 19:30ean, kultura eta kirol alkarteak Kultur Etxean.

**ZEMENDIAK 7
IGORRE**

Arrastian Azoka solidariorako materiala jasoko da Lehendakari Agirre kalean, markesinaren atzeko arkupeetan.

LEMOA

10:00etan, Lemoa Lanen aurkezpena: zer egin da orain arte eta zer egingo da 2025ean. Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEMENDIAK 8
ARTEA**

19:00etan, Irakurleen Txokoan Karmele Jaioren *Orain hilak ditugu* Alaine Agirrek bideratuta.

IGORRE

19:00etan, *Aulki hutsak*, heriotzea eta doluaren inguruko jardunaldiak, Iñaki Peñaren dokumentala eta berbaldia Lasarte Aretoan.

LEMOA

20:00etan, Blas Fernandezek kontzertu didaktikoa *A solas con la batería* Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Podologia zerbitzua udaletxean.

ZEANURI

17:00etan, Unai Beitia (Iturbaltza) eta Nerea Mandalunizen (Neiker) berbaldia *Abeltzaintza sektorearen produkzio hobekuntzarako larraketa birsortzailearen erdua: abantailak eta*

**ZEMENDIAK 9
IGORRE**

11:00etan, heriotzea eta doluaren inguruko jardunaldiak, Marta Sariñenagaz mahai-inguru irekia. Liburutegian.

20:00etan, Mugan taldearen *Aurrera ez den alde batera* proiektua aurkezteko kontzertua Lasarte Aretoan.

**ZEMENDIAK 10
ARTEA**

12:00etan, San Martin ermitan mezea. 13:30ean, Amann & The Wayward taldearen kontzertua Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Lagunak erreskatera*; 19:30ean, *El 47* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, XXV. Nekazaritzako Elikagaien Azokea; 13:00etan, azkolari erakustaldia. Arlonagusia plazan.

**ZEMENDIAK 11
IGORRE**

18:00etan, EH Bilduren aurrekontuen gaineko bilera gazteak Kultur Etxean; 19:30ean, Garbe eta Mikeleko auzotarrak Kultur Etxean.

LEMOA

09:30ean, ibilaldi gidatua helduentzako 1936ko Gudari Parketik; 19:00etan, Mikel Erdozain eta Maria Folgadoen berbaldia *Ametsak betetzeko bidea*

**Umeentzako ipuin kontaketea egongo da Igorreko liburutegian**

Ines Bengoak *Kontu kantari* ipuin saioa eskainiko dau zementiaren 14an, 18:00etan, Igorreko liburutegian. 5-6 urteko umeentzat gomendatuta dago.

Saioan, ipuinak kontau eta kantau egingo ditu ipuin kontalariak. "Txikerrenek ipuinez gozatzen dabe zentzumen guztiakaz, horregaitik, kontau, kantau eta berben bidez jolasten gara eurekaz" azaltzen dau Bengoak sinopsian.

Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEMENDIAK 12
DIMA**

18:00etatik 20:00etara, Titi Ta Lolo alkarteak, Udalak eta Liburutegiak antolatuta, helduentzako ipuin kontalaritza tailerra Abaroan.

IGORRE

17:00etan, *Autozaintzarako estrategiak* ikastaroko saioa Kultur Etxean.

**ZEMENDIAK 13
ARTEA**

17:30ean, 2-5 urte bitarteko umeen familientzat Irakurketa Kluba Liburutegian.

17:30ean, Jubiladuen alkarteak antolatuta, *Inkontinentzia* berbaldia Kultur Etxean.

IGORRE

19:30ean, EH Bilduren bilera aurrekontuen gainean erdiguneko auzotarrak Kultur Etxean.

LEMOA

18:00etan, *Aldapa osasuntsuak* tailerra helduentzat 1936ko Gudari Parkean.

**ZEMENDIAK 14
ARANTZAZU**

18:00etan, jatekorik ez botateko sukaldaritza tailerra Kultur Gunean. Izena 747 490 491 telefonon edo arratia21@arratia.eus helbide elektronikon emon daiteke.

ARTEA

19:00etan, aurrekontuen aurkezpena Kultur Etxean.

DIMA

17:30ean, Jai Batzordeko bilera KZ Gunean.

18:00etatik 20:00etara, Titi Ta Lolo alkarteak, Udalak eta Liburutegiak antolatuta, helduentzako ipuin kontalaritza tailerra Abaroan.

LEMOA

10:30ean, DBH 3. eta 4. mailakoentzat, Ibon Oregiren berbaldia *Aparretan bizi* Kotxepin Kultur Etxean; 19:00etan, Lemoako Binakako II. Pentatloia kiroldegian.

**ZEMENDIAK 15
DIMA**

18:00etan, Ipuinen Txokoa. Helduentzako ipuin kontalaritza tailerrean prestatutako ipuinak kontauko dira Abaroan.

IGORRE

20:00etan, Blas de Oteroren euskeratutako *Ordaindu gabeko letra bat* antologiaren aurkezpena. Poesia hegalaria taldeak deklamatu Lasarte Aretoan.

LEMOA

17:00etan, Atletismo Masterclassa edade guztietarako ikastetxean; 18:30ean, dantzan plazaz plaza Durundi Barri Dantza Taldearen eskutik, Plaza Gorrian.

**ZEMENDIAK 16
ARANTZAZU**

18:00etan, Arratiako eleizeak eta Caritasek antolatutako Pobre VIII. Eguna jaialdia frontoian.

AREATZA

Sokatirea, Bizkaiko Goma Gaineko Txapelketako 1. jardunaldia 8 x 8 mistoa, 580 kg. 15:30ean, pisaketea; 17:30ean, txapelketea. Taldeak:

Abadiño A, Abadiño B, Forua, Gaztedi eta Goiherri. Frontoian.

IGORRE

18:00etan, Pajaros Pintados konpainiaren *Olairen lorategia* umeentzako antzerkia Lasarte Aretoan.

LEMOA

11:00etan, Lemoa Txirrindulari Elkarteak antolatuta, bizikleta erakustaldia Luis Zubero Skill Park-ean; 17:00etan, 12-16 urte bitartekoentzat *Bizikletak martxan: mundu hobe baten aldeko martxa* Lemoa-Usansolo Gaztelekitik.

**ZEMENDIAK 17
ARTEA**

11:30etik 13:00etara, *Haurkuna* umeentzako tailerrak plazan eta Kultur Etxean.

18:00etan, Kafrangak andra taldeak antolatuta *Bi arnas* dokumentala Kultur Etxean.

IGORRE

11:00etatik 14:30era, Arratiako Andra Sortzaile eta Ekintzaileen Azokea eskolako aterpean; 12:00etan, herrikirol ekitaldia kiroldegian. Urrezko Aizkolari Kopako kanporaketea eta Urrezko Harrijasotzaile Binakako Txapelketak andrazko zein gizonzekoenak.

17:00etan, zinea, *Transformers One*; 19:30ean, *La habitación de al lado* Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

Lemoatx Trail. 08:00retan, mendi martxa luzea (25 km); 09:15ean, lasterketa luzea (25 km); 10:00etan, lasterketa laburra (17 km); 10:45ean, mendi martxa familiar (8,5 km). Ikastetxetik urtenda.

**ZEMENDIAK 18
IGORRE**

18:00etan, Golazen-eko 11. denporaldiaren lehen kapituluaren estreinaldia Kultur Etxean.



KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. *Online* klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

BASERRIA SALTZEAN DA

Zeberion 750 m²ko baserrietxeak salduen da inguruan landa zabalagaz. Interesdunek deitu 609 457 016 telefonora.

LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474 telefonora deitu.

LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gitienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

LANA

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein

taldeka. Frantses filologian graduatua.

Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarrek adin eta maila guztiakotako eskolak emoten ditu, *online* eta aurrez aurre. Interesdunek deitu: 610 863 369.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Esperientziadun andra euskalduna, umeak zaintzeko prest dago. Interesautak egotekotan, deitu 686 341 677 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako gradua PT aitamanager ikasi dot. Lehen Hezkuntzako ikasleei edozein arlotan klase partikularrak emoten deutesdaz. Interesdunek deitu edo idatzi 693 064 726 telefonora.

IRAKASLE BILA

Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusn irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Mugan taldearen kontzerturako.

Beñat Iriondo (Zeberio)
Edorta Zurinaga (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Olaia*ren lorategia antzezlanerako.

Iban Gortazar (Areatza)
Eguzkiñe Zuluaga (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a Tlf. 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia Tlf. 609-79-40-54

begitu
eus

 **Smurfit Kappa**
CENTRAL FORESTAL



Central Forestal (Smurfit Kappa), “la papelera”, ibilbide luzeko enpresa gara, eta basogintzan kaudimen handia dugu.

Koniferetako egur mota guztiak erosteko interesa dugu (apeak eta zerrarako zurgaiak), zutik zein botata, baita entresaka zein matarrasetan ere.

Egurra saltzekotan bazabiltza, zalantzarik gabe jar zaitez harremanetan Eukenerekin, **669 41 97 68** telefonoan, atsegin handiz bisitatuko zaitu eta gure eskaintzarik onena prestatuko dizu.

eukene.oarbeascoa@smurfitkappa.es



www.smurfitkappa.com